

LANBIDE PROGRAMACIÓN
HEZIKETAKO ZIKLOEN DE LOS CICLOS FORMATIVOS
PROGRAMAZIOA DE FORMACIÓN PROFESIONAL



FABRIKAZIO
MEKANIKOA

FABRIKAZIO MEKANIKOKO
PRODUKZIOA PROGRAMATZEKO
GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

2. modulua: Mekanizazio, Konformazio eta
Muntaia Prozesuen Definizioa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

LANBIDE PROGRAMACIÓN
HEZIKETAKO ZIKLOEN DE LOS CICLOS FORMATIVOS
PROGRAMAZIOA DE FORMACIÓN PROFESIONAL



FABRIKAZIO
MEKANIKOA

FABRIKAZIO MEKANIKOKO
PRODUKZIOA PROGRAMATZEKO
GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

2. modulua: Mekanizazio, Konformazio eta Muntaia Prozesuen Definizioa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
Lanbide Heziketako eta Etengabeko
Ikaskuntzako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
Viceconsejería de Formación Profesional
y Aprendizaje Permanente

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009

Argitaraldia: 1.a, 2009ko urria


Egilea: Javier López Hernández

Argitaratzailea eta koordinazioa: Víctor Marijuán Marijuán
KOALIFIKAZIOEN ETA LANBIDE HEZIKETAREN EUSKAL INSTITUTOA
INSTITUTO VASCO DE CUALIFICACIONES Y FORMACIÓN PROFESIONAL
www.kei-ivac.com



Diseinua eta diagramazioa: TRESDETRES

L.G.: BI-1778-09



Iraupena: 231 ordu
UDen kopurua: 8

Esku artean duzun argitalpen hau lanean ari diren lankideek landu dute.

Edozein gairen programazioa oso lan pertsonala da, irakasle bakoitzaren esperientzian oinarritua eta, horrenbestez, subjektiboa. Premisa hori kontuan izanik, programazioa aztertzea eta egoki baderitzozu kontsultarako material gisa erabiltzea gonbidatzen zaitugu. Zure irakasle-lana bideratu dezakeen gida gisa ere baliagarria izan dakizuke.

Izan ditzakeen mugak aintzat hartu badira ere, heziketa-ziklo berrien OCDak abiapuntu izanik sortu eta diseinatu da, eta EAEn curriculum-diseinuaren eta irakaskuntza-programazioaren arloan indarrean dagoen legeria hartu da kontuan (otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua).

Erabilgarria izan dakizun espero dugu, eta, aldi berean, egileek lan honetan egindako ahalegina eskertzen dugu.

AURKIBIDEA

	UD-EN SEKUENTZIAZIOA ETA DENBORALIZAZIOA	04. or.
0	0. unitate didaktikoa: Moduluaren aurkezpena	05. or.
1	1. unitate didaktikoa: Mekanizazio bidezko fabrikazioa eta muntaia	08. or.
2	2. unitate didaktikoa: Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa	14. or.
3	3. unitate didaktikoa: Akaberako mekanizazioa	18. or.
4	4. unitate didaktikoa: Mekanizazio bereziak	23. or.
5	5. unitate didaktikoa: Txaparen konformazioa	27. or.
6	6. unitate didaktikoa: Muntaia	31. or.
7	7. unitate didaktikoa: Mekanizazio-denborak kalkulatzeko	35. or.
8	8. unitate didaktikoa: Prozesuak optimizatzea	38. or.



Unitate didaktikoen sekuentziazioa eta denboralizazioa

EDUKI MULTZOAK					UNITATE DIDAKTIKO SEKUENTZIATUAK	IRAUPENA
M1	M2	M3	M4	M5		
					UD0: Moduluaren aurkezpena	1 h
X	X	X		X	UD1: Mekanizazio bidezko fabrikazioa eta muntaia	28 h
X					UD2: Txirbil-harroketara bidezko mekanizazioa	49 h
X					UD3: Akaberako mekanizazioa	21 h
X					UD4: Mekanizazio bereziak	17 h
	X				UD5: Txaparen konformazioa	14 h
		X			UD6: Muntaia	28 h
X	X	X	X		UD7: Mekanizazio-denborak kalkulatzeko	21 h
X	X	X	X	X	UD8: Prozesuak optimizatzea	52 h
GUZTIRA						231 h

1. multzoa: Mekanizazio-prozesuak
2. multzoa: Konformazio-prozesuak
3. multzoa: Muntaia-prozesuak
4. multzoa: Mekanizazio-, konformazio- eta muntaia-kostuak baloratzea
5. multzoa: Oinplanoko banaketa



0. unitate didaktikoa: MODULUAREN AURKEZPENA		Iraupena: 1 ordu			
<p>Ikaskuntzaren helburuak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Moduluaren garapenaren plangintza orokorra ezagutzea, baita taldeko kideak ere. 2. Irakasleak prestakuntza-prozesuaren kudeaketan aintzat hartu eta aplikatuko dituen irizpideak ulertzea. 3. Ikasleak moduluari dagokionez dituen eskubideak eta betebeharrak identifikatzea. 4. Moduluaren unitate didaktikoen arteko eta moduluaren eta beste moduluen arteko lotura nagusiak ulertzea. 5. Norberaren jakintzak identifikatzea, moduluan lortu behar diren jakintzei dagokienez. 					
EDUKIAK		Multzoak			
		1	2	3	4
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Zikloko moduluen arteko eta zikloaren eta erreferente dituen kualifikazioen arteko loturak aztertzea. • Diziplinaren, metodologiaren, erlazioen eta antzeko beste gaien inguruan planteatzen diren alderdiak, arauak eta elementuak identifikatzea, eta euskarri egokian erregistratzea. 				
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Zikloa osatzen duten kualifikazioak eta moduluarekiko lotura. • Moduluaren ekarpena zikloko helburuak lortzeko garaian. • Moduluaren helburuak. • Modulua eta unitate didaktikoak ebaluatzeko irizpideak. 				
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Taldeko kide guztiengan, baita irakaslearengan ere, desiragarriak diren portaeren inguruan adostasuna lortzearen garrantzia baloratzea. • Moduluaren garapenean jarraitu beharreko arauak eta irizpideak. 				



JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikat.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den
			Ir.	Ik.			
J1 Ikasleen eta irakaslearen aurkezpena.	1	10 m.	x	x	Irakasleak eta ikasleek nork bere burua aurkeztuko dute. Irakasleak iradokiko ditu aurkezpenean interesgarriak izan daitezkeen alderdiak, eta informazio bat edo bestea ematea hautazkoa izango da.	Helburua da hasierako ezagutza lortzea eta gizarte-oztopoak haustea, taldeko kideen arteko komunikazioa erraztearren. Aurreko ikasturteik sortutako taldea denean, ez da jarduera hau beharrezkoa izango.	Ez da bitarteko berezirik behar.
J2 Programazioa osatzen duten elementuen aurkezpena.	2-4	10 m.	x	x	Irakasleak programazioa osatzen duten elementuak, ordutegiak eta abar aurkeztuko ditu, eta, horretarako, eskema bat erabiliko du edo baliabide informatiko bidezko aurkezpena egingo du.	Ikasleek moduluaren gaiaren programazioari, egiturari, loturei, denborari eta iraupenei buruzko ikuspegi orokorra jaso beharko dute, besteak beste.	Arbela. Power Point-eko aurkezpena edo antzekoa. Kronogramak Informazioa duten fotokopiak.
J3 Prestakuntza-prozesuaren kudeaketa gidatuko duten irizpideen eta arauen aurkezpena.	2-3	10 m.	x	x	Irakatsi eta ikasteko prozesua kudeatzeko erabiliko diren askotariko irizpideak ezagutaraziko ditu irakasleak. Gardenkiaz edo beste elementu batzuek lagundutako ahozko azalpena erabiliko du. Hortaz, azterketak zuzentzeko eta ebaluatzeko irizpideak, barne-erregimeneko araudia, diziplina-erantzukizunak, eta abar azalduko ditu. Zalantza guztiak argitzeko denbora-tartea zabalduko da.	Horrela, ikasleek ikasketa, gizarte eta harremanen arloko esparrua ezagutu eta ulertuko dute, eta arauzko esparru horretara moldatu ahal izango dute haien jarduna.	Ikasgelan edo lantegi-ikasgelan egin daiteke jarduera, eta ez da baliabide berezirik behar.
J4-E1 Egin beharreko lanbide-moduluaren gainean ikasleek aurretik dituzten ezagupenen identifikazioa.	5	30 m.	x	x	Jarduera hori elkarrizketaren bidez garatu ahal izango da, baita ikasleek erantzun beharreko irakaslearen galderen bidez, edo, bestela, ondorio horretarako prestatutako galdera irekien bidez edo erantzun anitzeko galderak dituen galdera sorta baten bidez.	Moduluan garatuko diren edukiei dagokienez, ikasleen abiapuntu jakintza-maila ezagutu nahi da. Abiapuntu jakintza hori ezagutzeak programazioa berregituratzeko eta taldearen eta gizabanakoen errealitatera egokitzeko aukera emango dio irakasleari.	Galdera sortak



OHARRAK

- Nahikoa izango da J1 jarduera moduluetakoren batean egitea. Zikloko taldeak adostu beharko du zein modulutan egingo den.
- J4 jarduera mantendu ahal izango da, nahiz eta unitate didaktikoetako bakoitzean hasierako ebaluazioa barnean hartzen duen jarduera egin. Bi jarduera horiek bateragarriak eta osagarriak izango dira beti. Aurretiazko jakintzetarako lehen hurbilketa izan daiteke, ondoren, unitate bakoitzean abiapuntuko jakintza horretan gehiago sakontzeko.
- Modulu honen unitate didaktikoetan, jarduerak irakatsi eta ikastekoak (I) edo ebaluaziokoak (E) izan daitezke. Zenbaitetan, jarduera bera, irakatsi eta ikastekoa ez ezik, ebaluaziokoa ere izan daiteke. Halakoetan, jarduera hori (In-Em) gisa adieraziko da eta hiru motak bilduko ditu. I-en zenbakikuntza (n) eta E-ena (m) elkarrekiko independenteak dira.



1. unitate didaktikoa: MEKANIZAZIO BIDEZKO FABRIKAZIOA ETA MUNTAIA

Iraupena: 28 ordu

IE1: Mekanizazioaren, txirbil-harroketaen, urraduraren, elektrohigaduraren eta prozedura berezien bidezko mekanizazio-prozesuak zehazten ditu, eta prozesuaren sekuentzia eta aldagaiak aztertu eta justifikatzen ditu.

IE2: Prozesuaren sekuentzia eta aldagaiak aztertu eta justifikatu ondoren, konformazio-prozesuak zehazten ditu.

IE3: Prozesuaren sekuentzia eta aldagaiak aztertu eta justifikatu ondoren, muntaia-prozesuak zehazten ditu.

IE5: Makinak eta ekipoak oinplanoan banatzen ditu, eta haien antolaera fisikoa fabrikazio-prozesuarekin lotzen du.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Merkatuan eskuragarri dauden material eta produktu mekanikoak, eta horien propietateak eta aplikazioak identifikatzea, eskatutako zehaztapenen arabera haiek erabiltzeko.
2. Fabrikazio mekanikoan esku hartzen duten mekanizazio-, konformazio- eta muntaia-prozedurak deskribatzea.
3. Fabrikatu beharreko unitateen dimentsio-ezaugarriak eta formakoak, eta kantitatea konformazio-prozedurekin, makinekin, erremintekin eta haiek egiteko beharrezko tresnekin erlazionatzea.
4. Makinak eta ekipoak kokatzeko beharrezko azalerak fabrikazio mekanikoko prozesuekin erlazionatzea..
5. Fabrikazio mekanikoko prozesuetan aplikatzekoak diren ingurumen-babesari buruzko arauak eta arriskuak identifikatzea.

EDUKIAK		Multzoak				
		1	2	3	4	5
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Mekanizatu beharreko material landugabeak identifikatzea. • Makina-erremintak hautatzea. • Piezak eusteko tresneria hautatzea. • Muntaia-prozesuetan erabiltzen diren makinak hautatzea. • Fabrikazio mekanikoko muntaia-erremintak hautatzea. 	X	X X	X X		
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Mekanizazio-tekniken bilakaera historikoa. • Material normalizatuak: material metalezkoak, polimerikoak eta zeramikoak sailkatu eta kodetzea. • Materialen mekanizagarritasun-ezaugarriak. • Mekanizazio-prozesuen faseetan ohikoak diren tratamendu termikoen eta gainazalekoen eragina. • Material mekanizagarrien forma komertzialak. • Materialak eta horien mekanizazio-baldintzak. • Materialen ingurumen-eragina. • Prozesu-orriak. Informazioaren egitura eta antolamendua. 	X X X X X X X X X				



	<ul style="list-style-type: none"> • Txirbil-harroketaren, konformazioaren eta mekanizazio berezien prozesuak. • Makina-erremintak. • Ebaketa eta konformaziorako erremintak. • Teknika metrologikoak eta egiaztapenekoak.mekanizazioan, konformazioan eta muntaian. • Egiaztatu eta neurtzeko tresnak. • Mekanizazio-, konformazio- eta muntaia-prozesuko AEAMa. • Konformazio-prozesuetan lor daitezkeen formak eta kalitateak. • Konformaziorako makinak. • Piezak eusteko tresneria. • Makina kargatu eta deskargatzeko ekipo osagarriak. • Fabrikazio mekanikoko muntaia-prozesuetan erabiltzen diren teknikak (mihizatzea, itsastea, etab.). • Muntaiarako makinak, osagarriak eta tresnak. • Material jakin batzuk mekanizatu eta manipulatzeko izaten diren arriskuak (leherketa, tokikotasuna eta ingurumen-kutsadura, besteak beste). • Fabrikazio mekanikoan erabiltzen diren fabrikazio- eta muntaia-sistemen oinplanoko banaketa. • Oinplanoko antolaera desegokiari egotz dakizkikeen laneko arriskuak (leherketa eta toxikotasuna, besteak beste). • Oinplanoko antolaera desegokiari egotz dakizkikeen arriskuak ingurumen-babesaren ikuspegitik. 	X							X		
		X							X		
		X	X						X		
		X	X						X		
			X						X		
			X						X		
			X						X		
			X						X		
			X						X		
			X						X		
			X						X		
			X						X		
			X						X		
			X						X		
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Kontzeptu eta prozedura berriak ikasteko interesa. • Prozesu teknologikoen lan profesionala baloratzea. • Mekanizazio-, konformazio- eta muntaia-tekniken bilakaera historikoa ezagutzeko jakin-mina. 	X	X								
		X	X								
		X	X								
JARDUERA					METODOLOGIA				BALIABIDEAK		
ZER	Helburu	D.	NORK		NOLA	ZERTARAKO	ZEREKIN	egingo den			
egingo	inplikatu		Ir.	Ik.				egingo den	egingo den		
J1 UDaren		0,5 h	X		Irakasleak ikaskuntzaren helburuak aurkeztuko ditu, unitate didaktikoa moduluen barruan kokatuko du, eta hura modulua osatzen duten gainerako unitateekin eta, era berean, heziketa-zikloaren helburu orokorrekin eta dagokion konpetentziarekin lotuko du. UDan garatzen diren edukiak eta jarduerak azalduko ditu, bai eta ebaluazio- eta errekoerazio- prozesuak ere.	Irakasleak moduluen, zikloaren eta lanbide-profilaren testuinguruan kokatzeko. UDari lotutako irakatsi eta ikasteko, eta ebaluatzeko prozesua ezagutzeko. Irakasleengan fabrikazio-prozesuekiko motibazioa areagotuko duten itzaropenak sorrarazteko.	Kualifikazioak. OCDA. UDaren programazioa. Planifika daitezkeen eguneroko egoerak. Irakasleentzako dokumentazioa.				



					<p>jarduerak, eta kalifikazio-irizpideak ere. Ikasleak motibatuzeko, eguneroko egoerak planteatuko dira. Horietan, prozesuak zehazteak horien eraginkortasuna hobetuko du.</p> <p>Taldeari zenbait galdera egingo zaizkio fabrikazio mekanikoan dauden prozesu moten eta erantzunen inguruan. Irakasleak fabrikazio mekanikoaren arloan esku hartzen duten prozesuen ikuspegi orokorra emango du.</p> <p>Ikasleei UDari dagokion dokumentazioa emango die.</p>		
J2 Forma mekanizagarriak aztertzea eta lortutako sailkapena azaltzea.	3	2 h	X	X	<p>Txirbil-harroketako, mekanizazio berezietako edo konformazioko prozesuetan lortutako piezen plano edo irudien multzo batetik abiatuta, ikasleek, talde txikitik, ikusitako formak sailkatuko dituzte, bai eta haien gainazalaren egoera ere, zimurtasunaren ikuspegitik.</p> <p>Ondoren, talde bakoitzeko bozeramaile batek lortutako sailkapena azalduko du. Azkenik, irakaslearen laguntzarekin, sailkapen bakarra ezarriko da.</p>	<p>Ondoren fabrikazio-prozesuak, makinak eta tresneria errazago hautatzeko. Taldean lan egiteko eta jendaurrean azaltzeko gaitasuna garatzeko.</p>	<p>Ahalik eta fabrikazio-prozedura gehien bidez lortutako piezen eta multzoen planoak edo irudiak.</p>
J3 Azalpena, fabrikazio-prozesuei buruzkoa.	2, 3	2 h	X		<p>Irakasleak, eskematikoki, fabrika daitezkeen formak lortzeko prozesuak azalduko ditu eta zein makina erabiltzen diren adieraziko du.</p> <p>Ondoren, prozesu-orri baten edukiak erakutsi eta azalduko ditu.</p>	<p>Fabrikazio-prozesuak eta horiek gauzatzeko erabiltzen diren erremintak ulertzeko.</p>	<p>Fabrikazio-prozesuen eskemak.</p>
J4 Fabrikazio-lantegirako bisita eta azalpena, makinen funtzionamenduari, eta	2, 3, 5	5 h	X	X	<p>Ikastetxeko lantegietan, irakasleak eskuragarri dauden makinetan prozesuak</p>	<p>Fabrikazio-prozesuak ulertzeko. Laneko arriskuei aurrea hartzeko</p>	<p>Fabrikazio-lantegia.</p>



horien osagai, tresneria eta erremintei buruzkoa.					azalduko ditu. Makinen funtzionatzeko modua, eta horien osagai, tresneria eta erremintak azalduko ditu. Azkenik, makinen eta instalazioen arriskuak adieraziko ditu, eta horiek saihesteko modua eta ingurumenaren babesa azalduko du.	beharraz jabetzeko. Ingurumena babestearen beharraz jabetzeko.	
J5-E1 Ikasleen azalpena, prozesuei, makina-erremintei eta tresneriari buruzkoa.	2, 3, 5	8 h		X	Irakasleak ikasleen artean aurreko jardueran ikusi ez diren prozesuak banatuko ditu, ikasle bakoitzak gara ditzan eta, ondoren, gainerako taldekideen aurrean azaldu ditzan. Horretarako, Internet bidez, prozesuaren gauzatzeari buruzko informazioa lortuko du: makinak nola funtzionatzen duen, zein erreminta eta erreminta-etxe erabiltzen dituen, prozesuaren aldagaiak zein diren, laneko arriskuen prebentzioa, ingurumenaren babesa, etab. Irakasleak azalpenaren kalitatea ebaluatuko du eta datuak erregistratuko ditu.	Fabrikazio-prozesuak ulertzeko. Laneko arriskuei aurrea hartzeko beharraz jabetzeko. Ingurumena babestearen beharraz jabetzeko. Taldean lan egiteko eta jendaurrean azaltzeko gaitasuna garatzeko. Zehaztutako helburuak zein neurritaraino lortu diren ebaluatzeko.	Internet. Proiektorea. Oharren erregistroa.
E2 Ebaluazio-jarduera: banakako lana.	2, 3, 5	4 h		X	Ikasleek, fabrikazioko perdoi dimentsionalak, geometrikoak eta gainazalenak zehaztuko dituen multzoko plano batetik abiatuta, multzoaren osagaiak egiteko makinak hautatuko dituzte eta bakoitzean egin beharreko eragiketak zehaztuko dituzte; erabiliko diren erremintak, erreminta-etxeak eta tresneria adierazita. Irakasleak azalpenaren kalitatea	Prozesuei buruzko ezagutzan sakontzeko eta adierazitako ikaskuntza-helburuekin lotutako gaitasunak ebaluatzeko.	Makinen katalogoa. Oharren erregistroa.



					ebaluatuko du eta datuak erregistratuko ditu.		
J6 Azalpena, prozesuko AEAMari buruzkoa.	2	1 h	X		Irakasleak AEAMaren kontzeptua eta hura egiteko modua azalduko ditu, adibideen bitartez.	UD8 unitatean aplikatuko diren prozesuen azterketari eta hobekuntzari buruzko kontzeptuak barneratzeko.	Egindako AEAMen adibideak.
J7 Azalpena, fabrikazioaren historiari buruzkoa.	2	2 h		X	Ikasleek, talde txikitik, irakasleak zuzendu dien fabrikazio-prozesuaren historia azalduko dute. Horretarako, eskura dituzten baliabideekin informazioa bilatu, laburtu eta taldeari azalduko diote.	Fabrikazio-prozesuen bilakaera historikoarekiko jakin-mina sustatzeko.	Internet. Proiektorea.
J8 Azalpena, materialei eta horien egoerei buruzkoa.	1	1 h	X		Irakasleak mekanizazioan eragina duten materialen ezaugarriak aditzera emango ditu, eta behar duten tratamendu termikoaren edo gainazalekoaren arabera mekanizazioa nola aldatzen den azalduko du. Era berean, materialen forma komertzialak azalduko ditu eta katalogoak erabiltzen irakatsiko du. Azkenik, materialak mekanizatzeko, manipulatzeko eta horiek tratatzeko moduak dakartzaten laneko eta ingurumenerako arriskuez arituko da.	Materialek fabrikazio-prozesuan duten eragina ezagutzeko.	Materialen katalogoa.
J9-E3 Praktika gidatua, materialei buruzkoa.	4	1 h	X	X	Ikasleek, E2 jarduerako informaziotik eta praktikatik abiatuta, multzoa egiteko beharrezko materiala hautatuko dute eta haren erreferentzia identifikatuko dute: dimentsioak, tratamendu termikoak edo gainazalekoak, kantitatea, pisua eta kostua. Irakasleak emaitzak ebaluatu eta datuak erregistratuko ditu.	Objektu bakoitza fabrikatzeko beharrezko material komertziala hautatzeko gai izan daitezen. Dagozkion ikaskuntza-helburuekin lotutako gaitasunak ebaluatzeko.	Materialen katalogoa. Oharren erregistroa.



<p>J10-E4 Praktika gidatua, oinplanoko banaketari buruzkoa.</p>	<p>4</p>	<p>1,5 h</p>	<p>X</p>	<p>X</p>	<p>E2 jardueraren emaitzetako baten gainean, makinan eta baliabideen oinplanoko banaketaren inguruan irakasleak emandako jarraibideak kontuan izanda, eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauari jarraituz, ikasleek, talde handitan, emandako multzoa fabrikatzeko banaketa aproposa planteatu eta justifikatuko dute. Irakasleak okerreko planteamenduak zuzenduko ditu eta lanaren ebaluazioa erregistratuko du.</p>	<p>Lantegiko oinplanoan fabrikazio-baliabideak banatzeko beharrezko irizpideak eskuratzeko. Dagozkion ikaskuntza-helburuekin lotutako gaitasunak ebaluatzeko.</p>	<p>E2 jardueraren emaitzak. Marrazketa-materiala. Makina-erreminten katalogoa. Oharren erregistroa.</p>
<p>J11 UDaren aurkezpena.</p>		<p>0,5 h</p>	<p>X</p>		<p>Irakasleak ikaskuntzaren helburuak aurkeztuko ditu, unitate didaktikoa moduluen barruan kokatuko du, eta hura modulua osatzen duten gainerako unitateekin eta, era berean, heziketa-zikloaren helburu orokorrekin eta dagokion kompetentziarekin lotuko du. UDan garatzen diren edukiak eta jarduerak azalduko ditu, bai eta ebaluazio- eta errekupeazio-jarduerak, eta kalifikazio-irizpideak ere. Irakasleak motibatuko dira. Horietan, prozesuak zehazteak horien eraginkortasuna hobetuko du. Taldeari zenbait galdera egingo zaizkio fabrikazio mekanikoan dauden prozesu moten eta erantzunen inguruan. Irakasleak fabrikazio mekanikoaren arloan esku hartzen duten prozesuen ikuspegi orokorra emango du. Irakasleei UDari dagokion dokumentazioa emango die.</p>	<p>Ikasleak moduluen, zikloaren eta lanbide-profilaren testuinguruan kokatzeko. UDari lotutako irakatsi eta ikasteko, eta ebaluatzeko prozesua ezagutzeko. Ikasleengan fabrikazio-prozesuekiko motibazioa areagotuko duten itxaropenak sorrarazteko.</p>	<p>Kualifikazioak. OCDA. UDaren programazioa. Planifika daitezkeen eguneroko egoerak. Ikasleentzako dokumentazioa.</p>



OHARRAK

- J3 jarduera osatzearen, fabrikazio-prozesuen bideoak ikusteko eta fabrikazio mekanikoko enpresaren batera joateko aukera dago.
- J2, J6 eta J7 jarduerak egiteko, Internet bidez makinei buruzko informazioa lor daiteke.



2. unitate didaktikoa: TXIRBIL HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOA

Iraupena: 49 ordu

IE1: Mekanizazioaren, txirbil-harroketaren, urraduraren, elektrohigaduraren eta prozedura berezien bidezko mekanizazio-prozesuak zehazten ditu, eta prozesuaren sekuentzia eta aldagaiak aztertu eta justifikatzen ditu.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Txirbil-harroketa bidezko mekanizazio-prozesua beharrezko faseetan eta eragiketetan banatzea, eta horietako bakoitzerako materialaren dimentsio gordinak zehaztea.
2. Mekanizazioaren fase eta eragiketa bakoitzerako, laneko baliabideak, tresneria, erremintak, eta neurtu eta egiaztatzeko tresnak zehaztea.
3. Eragiketa bakoitzean erabili beharreko laneko parametroak (abiadura, aitzinamendua eta iraganaldi-sakonera, besteak beste) zehaztea.
4. Mekanizatu beharreko materialaren egoera (ijezketa, forjaketa, galdaketa, suberaketa eta tenplaketa, besteak beste) identifikatzea.
5. Mekanizazio-prozesuari buruzko dokumentazio teknikoa prestatu eta kudeatzea.
6. Prozesuan aplikatzekoak diren ingurumen-babesari buruzko arauak eta arriskuak identifikatzea.

EDUKIAK		Multzoak				
		1	2	3	4	5
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Mekanizatu beharreko material landugabeak identifikatzea. • Txirbil-harroketaren eta prozedura berezien bidezko mekanizazio-prozesuen eragiketa-sekuentzia deskribatzea. • Erremintaren edo piezaren ibilbideari dagozkion puntuak zehazteko kalkulu geometrikoa egitea. • Ebaketaren edo eragiketaren baldintzak hautatzea. • Ebakitzeko erremintak hautatzea. • Mekanizazio-parametroak kalkulatzeko. • Egin beharreko lanak metodoz planifikatu ditu, zailtasunak eta horiek gainditzeko modua aurreikusita. 	X				
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Txirbil-harroketaren, konformazioaren eta mekanizazio berezien prozesuak. • Makina-erremintak. • Ebaketa eta konformaziorako erremintak. • Ebaketaren edo eragiketaren baldintzak. • Teknika metrologikoak eta egiaztapenekoak. 	X				



JARRERAZKOAK								X			
<ul style="list-style-type: none"> Kostuak murrizteko konpromisoa. Material-hondakinak murrizteko konpromisoa. Lanak egiteko ezarritako epeekiko konpromisoa. Kontzeptu eta prozedura berriak ikasteko interesa. 								X			
JARDUERA					METODOLOGIA				BALIABIDEAK		
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota		Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den		ZERTARAKO egingo den		ZEREKIN egingo den	
				Ir.	Ik.						
J1 UDaren aurkezpena.			0,5 h	X		<p>Irakasleak ikaskuntzaren helburuak aurkeztuko ditu, unitate didaktikoa moduluen barruan kokatuko du, eta hura modulua osatzen duten gainerako unitateekin eta, era berean, heziketa-zikloaren helburu orokorrekin eta dagokion kompetentziarekin lotuko du. UDan garatzen diren edukiak eta jarduerak azalduko ditu, bai eta ebaluazio- eta errekuerazio-jarduerak, eta kalifikazio-irizpideak ere.</p> <p>Irakasleak, txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa optimizatzeko, lan-prozesuaren, eta erremintak, ebaketa-parametroak, etab. behar bezala hautatzearen garrantzia azpimarratuko du. Ikasleei UDari dagokion dokumentazioa emango die.</p>		<p>Ikasleak moduluen, zikloaren eta lanbide-profilaren testuinguruan kokatzeko. UDari lotutako irakatsi eta ikasteko, eta ebaluatzeko prozesua ezagutzeko. Ikasleengan motibazioa areagotuko duten itzaropenak sorrarazteko.</p>		<p>Kualifikazioak. OCDA. UDaren programazioa. Ikasleentzako dokumentazioa.</p>	
J2-E1 Ikasleen praktika gidatua: txirbil-harroketa bidezko mekanizazioarako prozesu-orri bat egitea.		1, 2, 3, 4, 5	25,5 h	X	X	<p>Irakasleak, 3 ikasleko taldeei, gutxienez zulu, torneatu eta fresatu beharreko pieza baten fabrikazio-plano bana emango die. Ikasleek, banaka, eta fabrikazio-planotik abiatuta (bertan, fabrikazioko perdoi dimentsionalak, geometrikoak eta gainazalenak zehaztuko dira, bai eta piezaren materiala ere):</p> <ul style="list-style-type: none"> Mekanizazioarako makinak hautatuko dituzte. Katalogo komertzial batetik abiatuta, 		<p>Sarrera gisako informazioa bilatzeko. Txirbil-harroketa bidezko mekanizazio-prozesuak ulertzeko. Prozesu-orriak egiten trebetasuna lortzeko. Katalogo komertzialak erabilia, elementuak edo datuak hautatzeko.</p>		<p>Txirbil-harroketa bidez mekanizatzeko piezen fabrikazio-planoak. Materialen, erreminten, lotzeko tresneriaren eta egiaztatzeko tresnen katalogo komertzialak. Oharren erregistroa.</p>	



					<p>mekanizatu beharreko materialaren erreferentzia komertziala, neurri gordinak eta erosi beharreko kantitatea zehatuko dituzte.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Prozesu-orrian zehaztuko dituzte: egin beharreko eragiketa-sekuentzia; erabili beharreko erremintak, erreminta-etxeak eta lotzeko tresnak; eta egiaztatu eta kontrolatzeko tresnak. • Eragiketa ulertzeko beharrezko krokisak egingo dituzte. • Ebaketa-baldintzak zehaztu eta mekanizazio-parametroak kalkulatu dituzte. <p>Irakasleak planteatutako prozesuaren kalitatea ebaluatuko du eta datuak erregistratuko ditu.</p>	Ikaskuntzan egindako aurrerabidea ebaluatzeko.	
J3 Eztabaida ikasle talde bakoitzaren barruan, planteatutako prozesuaren egokitasunari buruz.	1, 2, 3, 4, 5	15 h		X	<p>Pieza beraren prozesua egin duen ikasle talde bakoitzak proposamen bakoitzaren egokitasunari buruz eztabaidatuko du eta egindako prozesuak gainerako ikaskideei azalduko dizkie, desberdintasunak laburtuta, eta bakoitzaren abantailak eta eragozpenak adierazita. Gainerako ikaskideek ideia gehiago ekar ditzakete aurkeztutako prozesuen gainean. Irakasleak moderatuko du eztabaida.</p>	<p>Talde-lanaren esparruan harremanetarako gaitasuna bultzatzeko. Espiritu kritiko konstruktiboa garatzeko. Txirbil-harroketa bidezko mekanizazio-prozesuak menderatzeko.</p>	<p>Txirbil-harroketa bidez mekanizatzeko piezen fabrikazio-planoak. Materialen, erreminten, lotzeko tresneriaren eta egiaztatze tresnen katalogo komertzialak.</p>
J4 Azalpena, txirbil-harroketa bidezko mekanizazioaren arriskuei eta ingurumenarekin lotutako alderdiei buruzkoa. J41. Praktika gidatua, laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzkoa.	6	4 h		X X X	<p>Irakasleak mekanizazio-eragiketetan dagoen laneko eta ingurumenerako arriskua azalduko du, lehen planteatutako prozesuekin lotuta. Ikasleek, talde txikitan, zehaztutako prozesuari dagokionez, laneko arriskuen prebentziorako eta ingurumen-babeserako neurriak deskribatuko dituzte.</p>	<p>Laneko arriskuen prebentzioaren eta ingurumen-babesaren garrantzia ulertzeko. Talde-lanaren esparruan harremanetarako gaitasuna bultzatzeko.</p>	<p>Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak. Makina-erreminten segurtasun-eskuliburuak.</p>
E2 Ebaluazioa, txirbil-harroketa bidezko	1, 2, 3, 4,	4 h		X	Ikasleek, gutxienez zulatu, fresatu eta	Lanean zuhurtasuna eta ordena	Txirbil-harroketa bidez



mekanizaziorako prozesu-orriei buruzkoa.	5, 6			<p>torneatzeko eragiketak bilduko dituen fabrikazio-planotik abiatuta (bertan, fabrikazioko perdoi dimentsionalak, geometrikoak eta gainazalenak zehaztuko dira, bai eta piezaren materiala ere):</p> <ul style="list-style-type: none"> • Mekanizaziorako makinak hautatuko dituzte. • Katalogo komertzial batetik abiatuta, mekanizatu beharreko materialaren erreferentzia komertziala, neurri gordinak eta erosi beharreko kantitatea zehatuko dituzte. • Prozesu-orrian zehaztuko dituzte: egin beharreko eragiketa-sekuentzia; erabili beharreko erremintak, erreminta-etxeak eta lotzeko tresnak; eta egiaztatu eta kontrolatzeko tresnak. <ul style="list-style-type: none"> • Eragiketa ulertzeko beharrezko krokisak egingo dituzte. • Ebaketa-baldintzak zehaztu eta mekanizazio-parametroak kalkulatu dituzte. <p>Ikasleek, zehaztutako prozesuari dagokionez, laneko arriskuen prebentziorako eta ingurumen-babeserako neurriak deskribatuko dituzte. Irakasleak planteatutako prozesuaren kalitatea ebaluatuko du eta datuak erregistratuko ditu.</p>	<p>ziurtatzeko. Eskuratutako trebetasuna ebaluatzeko. Irakatsi eta ikasteko prozesua ebaluatzeko.</p>	<p>mekanizatzeko piezen fabrikazio-planoak. Materialen, erreminten, lotzeko tresneriaren eta egiaztatze tresnen katalogo komertzialak. Oharren erregistroa.</p>
OHARRAK						
<ul style="list-style-type: none"> • J2 eta J3 jarduerak pieza desberdinekin errepikatuko dira planteatutako denboran, ahalik eta eragiketa kopuru handienarekin trebatzeko. • J2 jardueran planteatu piezaren bat prozesu anitzeko makinetan (adibidez, torneatu eta fresatzeko makinan) mekanizatzea planteatu daiteke. • Planteatutako piezak 3. eta 4. UDetan erabili daitezke. • Arbustu-faseetan kotatzeko garaian, kontuan izan behar da akabera-eragiketak egiteko utzi behar den soberakina. 						



3. unitate didaktikoa: AKABERAKO MEKANIZAZIOA

Iraupena: 21 ordu

IE1: Mekanizazioaren, txirbil-harroketaen, urraduraren, elektrohigaduraren eta prozedura berezien bidezko mekanizazio-prozesuak zehazten ditu, eta prozesuaren sekuentzia eta aldagaiak aztertu eta justifikatzen ditu.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Akabera-prozesua (arteztea, leuntzea eta lapeatzea, besteak beste) beharrezko fase eta eragiketetan banantzea.
2. Akaberaren fase eta eragiketa bakoitzerako, laneko ballabideak, tresneria, erremintak, eta neurtu eta egiaztatzeko tresnak zehaztea.
3. Eragiketa bakoitzean erabili beharreko akabera-parametroak (abiadura, aitzinamendua eta iraganaldi-sakonera, besteak beste) zehaztea.
4. Akabera-prozesuari buruzko dokumentazio teknikoa prestatu eta kudeatzea.
5. Prozesuan aplikatzekoak diren ingurumen-babesari buruzko arauak eta arriskuak identifikatzea.

EDUKIAK		Multzoak				
		1	2	3	4	5
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Txirbil-harroketaen eta prozedura berezien bidezko mekanizazio-prozesuaren eragiketa-sekuentzia deskribatzea. • Erremintaren edo piezaren ibilbideari dagozkion puntuak zehazteko kalkulu geometrikoa egitea. • Ebaketaren edo eragiketaren baldintzak hautatzea. • Ebakitzeko erremintak hautatzea. • Mekanizazio-parametroak kalkulatzea. • Egin beharreko lanak metodoz planifikatu ditu, zailtasunak eta horiek gainditzeko modua aurreikusita. 	X				
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Txirbil-harroketaen, konformazioaren eta mekanizazio berezien prozesuak. • Makina-erremintak. • Ebaketa eta konformaziorako erremintak. • Ebaketaren edo eragiketaren baldintzak. • Teknika metrologikoak eta egiaztapenekoak. 	X				
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Kostuak murrizteko konpromisoa. • Material-hondakinak murrizteko konpromisoa. • Lanak egiteko ezarritako epeekiko konpromisoa. • Kontzeptu eta prozedura berriak ikasteko interesa.. 	X				



JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den
			Ir.	Ik.			
J0. Unitate didaktikoaren aurkezpena.		0,5 h.	X		Irakasleak ikaskuntzaren helburuak aurkeztuko ditu, unitate didaktikoa modularen barruan kokatuko du, eta hura modulua osatzen duten gainerako unitateekin eta, era berean, heziketa-zikloaren helburu orokorrekin eta dagokion kompetentziarekin lotuko du. UDan garatzen diren edukiak eta jarduerak azalduko ditu, bai eta ebaluazio- eta errekupeazio-jarduerak, eta kalifikazio-irizpideak ere. Gainazaleko kalitate eta doitasun handiko piezak lortzeko akabera-eragiketak duten garrantzia nabarmenduko da. Irakasleak, akabera-eragiketak optimizatzeko, lan-prozesuaren, eta erremintak, ebaketa-parametroak, etab. behar bezala hautatzearen garrantzia azpimarratuko du. Ikasleei UDari dagokion dokumentazioa emango die.	Ikasleak modularen, zikloaren eta lanbide-profilaren testuinguruan kokatzeko. UDari lotutako irakatsi eta ikasteko, eta ebaluatzeko prozesua ezagutzeko. Ikasleengan akaberekiko motibazioa areagotuko duten itxaropenak sorrarazteko.	Kualifikazioak. OCDa. UDaren programazioa. Ikasleentzako dokumentazioa.
J1 Azalpena, bista osagarrien eta berezien inguruko oinarritzko alderdiei buruzkoa.	1-2	1 h.	X		Irakasleak 3 ikasleko taldeei pieza baten fabrikazio-plano bana emango die. Pieza hori, gutxienez, kanpoko eta barruko forma lauetan eta biraketakoetan arteztu beharko da, eta superakabera-prozesuak eskatuko dituzten perdoi dimentsionalak eta gainazalenak bilduko ditu.	Sarrerako informazioa bilatzeko. Akabera-prozesuak ulertzeko. Prozesu-orriak egiten trebetasuna lortzeko. Katalogo komertzialak erabili, elementuak edo datuak hautatzeko. Ikaskuntzan egindako aurrerabidea ebaluatzeko.	Akabera egiteko piezen fabrikazio-planoak. Akabera-ereminten, lotzeko tresneriaren eta egiaztatzeko tresnen katalogo komertzialak. Oharren erregistroa.



					<p>Ikasleek, banaka, eta fabrikazio-planotik abiatuta (bertan, fabrikazioko perdoi dimentsionalak, geometrikoak eta gainazalenak zehaztuko dira, bai eta piezaren materiala ere):</p> <ul style="list-style-type: none"> • Akaberako mekaniziorako makinak hautatuko dituzte. • Prozesu-orrian zehaztuko dituzte: egin beharreko eragiketa-sekuentzia; erabili beharreko erremintak, erreminta-etxeak eta lotzeko tresnak; eta egiaztatu eta kontrolatzeko tresnak. • Eragiketa ulertzeko beharrezko krokisak egingo dituzte. • Ebaketa-baldintzak zehaztu eta mekanizazio-parametroak kalkulatu dituzte. <p>Irakasleak planteatutako akabera-prozesuaren kalitatea ebaluatuko du eta datuak erregistratuko ditu.</p>		
J2 Bista osagarriak eta bereziak lortzeko praktika gidatua.	1-2	1,5 h.		X	<p>Pieza beraren prozesua egin duen ikasle talde bakoitzak aurkeztutako proposamen bakoitzaren egokitasunari buruz eztabaidatuko du eta egindako prozesuak gainerako ikaskideei azalduko dizkie, desberdintasunak laburtuta, eta bakoitzaren abantailak eta eragozpenak adierazita.</p> <p>Gainerako ikaskideek ideia gehiago ekar ditzakete aurkeztutako prozesuen gainean, eta irakaslea moderatzaile gisa arituko da.</p>	<p>Talde-lanaren esparruan harremanetarako gaitasuna bultzatzeko. Espiritu kritiko konstruktiboa garatzeko. Akabera-prozesuak menderatzeko.</p>	<p>Akabera egiteko piezen fabrikazio-planoak. Erreminten, lotzeko tresneriaren eta egiaztatze tresnen katalogo komertzialak.</p>



<p>J3 Azalpena, ohiko irudikapenen inguruko oinarritzko alderdiei buruzkoa.</p>	<p>3</p>	<p>0,5 h.</p>	<p>X</p>	<p>Irakasleak akabera-eragiketetan dagoen laneko eta ingurumenerako arriskua azalduko du, planteatutako prozesuekin lotuta.</p> <p>Ikasleek, talde txikitan, zehaztutako akabera-prozesuari dagokionez, laneko arriskuen prebentziorako eta ingurumen-babeserako neurriak deskribatuko dituzte.</p>	<p>Laneko arriskuen prebentzioaren eta ingurumen-babesaren garrantzia ulertzeko.</p> <p>Talde-lanaren esparruan harremanetarako gaitasuna bultzatzeko.</p>	<p>Laneko arriskuen prebentziora eta ingurumen-babesari buruzko arauak. Makina-erreminten segurtasun-eskuliburuak.</p>
<p>J4 Planoak osatzeko praktika autonomoa.</p>	<p>1-2-3</p>	<p>0,5 h.</p>	<p>X</p>	<p>Ikasleek, fabrikazio-plano batetik abiatuta (bertan, gutxienez, kanpoko eta barruko artezketa laua eta biraketakoa egiteko eragiketak, eta superakabera-prozesuak eskatuko dituzten perdoi dimentsionalak eta gainazalenak bilduko dira):</p> <ul style="list-style-type: none"> • Mekanizaziorako makinak hautatuko dituzte. • Katalogo komertzialetatik abiatuta, prozesu-orrian zehaztuko dituzte: egin beharreko eragiketa-sekuentzia; erabili beharreko erremintak, erreminta-etxeak eta lotzeko tresnak; eta egiaztatu eta kontrolatzeko tresnak. • Eragiketa ulertzeko beharrezko krokisak egingo dituzte. • Ebaketa-baldintzak zehaztu eta mekanizazio-parametroak kalkulatu dituzte. <p>Ikasleek, zehaztutako prozesuari dagokionez, laneko arriskuen prebentziorako eta ingurumen-</p>	<p>Lanean zuhurtasuna eta ordena ziurtatzeko.</p> <p>Eskuratutako trebetasuna ebaluatzeko.</p> <p>Irakatsi eta ikasteko prozesua ebaluatzeko.</p>	<p>Akabera-prozesuen bidez mekanizatzeko piezen fabrikazio-planoak.</p> <p>Materialen, erreminten, lotzeko tresneriaren eta egiaztatzeko tresnen katalogo komertzialak.</p> <p>Oharren erregistroa.</p>



					babeserako neurriak deskribatuko dituzte. Irakasleak planteatutako prozesuaren kalitatea ebaluatuko du eta datuak erregistratuko ditu.		
OHARRAK							
<ul style="list-style-type: none">J2 eta J3 jarduerak pieza desberdinekin errepikatuko dira planteatutako denboran, ahalik eta eragiketa kopuru handienarekin trebatzeko.							



4. unitate didaktikoa: MEKANIZAZIO BEREZIAK Iraupena: 17 ordu

IE1: Mekanizazioaren, txirbil-harroketaren, urraduraren, elektrohigaduraren eta prozedura berezien bidezko mekanizazio-prozesuak zehazten ditu, eta prozesuaren sekuentzia eta aldagaiak aztertu eta justifikatzen ditu.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Mekanizazio bereziko prozesua (elektrohigadura, ultrasoinuak, laserra eta ur bidezko ebaketa, besteak beste) beharrezko faseetan eta eragiketetan banatzea, eta horietako bakoitzerako materialaren dimentsio gordinak zehaztea.
2. Mekanizazioaren fase eta eragiketa bakoitzerako, laneko baliabideak, tresneria, erremintak, eta neurtu eta egiaztatzeko tresnak zehaztea.
3. Eragiketa bakoitzean erabili beharreko laneko parametroak (abiadura, aitzinamendua, iraganaldien sakonera eta korronte-intentsitatea, besteak beste) zehaztea.
4. Mekanizatu beharreko materialaren egoera (ijezketa, forjaketa, galdaketa, suberaketa eta tenplaketa, besteak beste) identifikatzea.
5. Mekanizazio-prozesuari buruzko dokumentazio teknikoa prestatu eta kudeatzea.
6. Prozesuan aplikatzekoak diren ingurumen-babesari buruzko arauak eta arriskuak identifikatzea.

EDUKIAK		Multzoak				
		1	2	3	4	5
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Txirbil-harroketaren eta prozedura berezien bidezko mekanizazio-prozesuen eragiketa-sekuentzia deskribatzea. • Erremintaren edo piezaren ibilbideari dagozkion puntuak zehazteko kalkulu geometrikoa egitea. • Ebaketaren edo eragiketaren baldintzak hautatzea. • Ebakitzeko erremintak hautatzea. • Mekanizazio-parametroak kalkulatzea. • Egin beharreko lanak metodoz planifikatu ditu, zailtasunak eta horiek gainditzeko modua aurreikusita. 	X				
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Txirbil-harroketaren, konformazioaren eta mekanizazio berezien prozesuak. • Makina-erremintak. • Ebaketa eta konformaziorako erremintak. • Ebaketaren edo eragiketaren baldintzak. • Teknika metrologikoak eta egiaztatpenekoak. 	X				
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Kostuak murrizteko konpromisoa. • Material-hondakinak murrizteko konpromisoa. • Lanak egiteko ezarritako epeekiko konpromisoa. • Kontzeptu eta prozedura berriak ikasteko interesa. 	X				



JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikatuak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den
			Ir.	Ik.			
